

# Eusko Jaurlaritzak bideragarriak ez diren enpresei ixten lagunduko die

Gasteizko Gobernuak 10.000 milioi pezeta emango ditu kaleratuko dituzten langileentzat

**E**usko Jaurlaritzak bideragarriak ez diren enpresei ixten lagunduko die, atzo Jon Azua Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde eta Industri sailburuak ziurtatu zuenez.

BILBO


Euskal Autonomi Elkartearen ia 50 enpresa «erortzen» ari direla esan zuen atzo Jon Azuak. Horregatik, zailtasunak dituzten enpresentzako 3-R Plangintza ezarri «enpresa hauetako batzuei lagunduko diegu ixten» gehitu zuen.

Bilbon izandako hitzaldi batean jakin erazi zuenez, 33 enpresa izan daitezke Plangintza horretan sar daitezkeenak. Halere, sailburuak ez zuen zehaztu hauetarik zenbat itxiko diren.

Ateak itxiko dituzten enpresa guzti hauetatik 2.500 edo 3.000 langile joango dira kalera. Langile hauek ekarriko duten kostuari aurre egiteko, 10.000 milioi pezeta bideratuko ditu Gasteizko Gobernuak. Hau da, galdutako lanpostu bakoitza hiru milioi pezeta kostatuko da.

**INDUSTRI POLITIKA BEREZIA** Azuak «Euskadirentzako industri politika bereziaren beharra» azpimarratu zuen, eta horretarako industri sarean «berehalako eskuartzea» gauzatu behar dela gaineratu zuen, zailtasunak dituzten enpresen deuseztapena ekiditeko.

Era berean, Eusko Jaurlaritzako Industria sailburuak altzairu sektorearekin daukaten konpromesua aipatu zuen, baina Gasteizko Gobernuak sektorea berrantolatzeke egin dituen proposamenak aurrera ateratzeko dituen zailtasunak azpimarratu



Argindarrrik ezean, acenorren bost lantegietako produkzioa erabat geldirik.

zitzen, «konpetentziarik ez bait daukagu edota kasu batzuetan bazkideak ez garelako», AHV eta Acenor gogoratuz.

Ingurune kompetitiboa sortzea garrantzitsua da Azuaren iritziz, «horretarako lanbide heziketa eta azpiegiturak hobetu behar dira, sindikatu, patronal, erakunde eta orokorrean hiritar guztien ohiturak aldatuz».

«Datozen urteotan ez dugu amestetako Euskadi berde eta bata zuridun langileez osaturikoa ezagutuko; sektore berberetan segituko dugu lanean eta irtenbidea kalitatearen hobekuntzan dago» azaldu zuen sailburuak.

Azkenik, Azuak Euskal Finantz Institutuaren eraketa iragarri zuen,

Euskadiko Energi Estrategiaren onarpenarekin batera. Azken honen helburua, EAEk berak ekoiztea behar duen energiaren % 40 litzateke eta hau lortzeko 250.000 milioi pezeta inbertsioa beharko litzateke.

**AGIRIANOK AZUARI ERANTZUN** Jose Antonio Agiriano, Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak errefusatu zituen atzo Jon Azua lehendakariordeak eginiko akusazioak. Acenorren egoeraren erantzule nagusia Administrazioa bera zela esan zuen Azuak, euskal enpresaren iharduera gelditzea argindarra eteteagatik «Administrazioaren arduragabekeria» zela leporatuz.

«Berriro ere, euskal ekonomia eta

industriaren ezbeharrak Gobernuari leporatzen zaizkio —kexu zen Agiriano— eta argudio hau, entzunaren entzunaz, ez da sinesgarria».

Gobernuaren ordezkariaren iritziz, Azuaren jokabide hori «estrategi okerra da, euskal industriaren erronka beraren merkatuak, lehiakideak, puntu ahul eta indartsuak identifikatu beharrean, Estatuaren Administrazioarekin identifikatzen duelako».

Iberdrolak Acenorri eginiko argindar tenduraz, altzairu berezi-tako sektoreak bizi duen egoera zailaren erakusgarria dela dio Agiriano. Bere ustez, egoeraren betiko irtenbidea diseinatu dagoen estrategia plangintza da, lan, finantz eta industri arloak negoziatuz.

Urte berriarekin batera, garraiolarien grebak

DONOSTIA

Datorren urtarrilaren hasieran grebaldi ugari hasiko da garraio sektorean. Dagoeneko hiru dira greba deialdiak eta Hego Euskal Herrian ere eraginik izango dutela espero da.

Lehenengo deialdia Conetrans sektoreko patronalak egin du, hilaren 30etik urtarrilaren 6ra. Patronalak deitutako grebaren arrazoia gasolioaren prezio igoera eta «Administrazioak sektorearekin erakutsi duen utzikeria» dira.

Era berean, sektoreko langile autonomoak biltzen dituen Fenadismar elkarteak urtarrilaren 2tik aurrera ere deitu du greba. Azkenik, garraio soldatepeko langile gehienak biltzen dituzten UGT eta CCOOek Conetrans deitutako greba «ixte patronala» dela esan dute eta beste lan galdialdi batera deitu dute urtarrilaren 20 eta 21erako, sektoreko konbenioa eskatzeko.

Sektoreko langileen erreibindikazioen artean, garraio enpresak bat egiteko laguntzak daude, kostuak gutxitu eta enpresa egiturak hobetzeko.

Halaber, garraiolarioek ez legezko langileak baztertu, aldez aurreko jubilazioak, lan gaixotasunak errekonozitzea eta inbertsionarako laguntzak ere eskatzen dituzte.

Bilboko Merkatal Ganbara kezkatu agertu da egunotan izango den grebagatik, «euskal ekonomiaren krisia aregotu» egingo dutela ziurtatuz.

Garraiolarien aldarrikapenekin bat etorri da Bilboko Ganbara eta Espainiako Ministeritzari langile hauek erreibindikazioak aintzat hartzeko eskatu dio.



## BIZKAIKO Postako enpresa batzordeko kideak

Bilboko Correos-en egoitzaren aurrean kateatu ziren atzo, JOSE SIMALEN argazkian ikusten den bezala. Langileek hiru ordezkari sindikalei zuzendaritzak ezarritako espediente bertan behera uztea eskatzen zuten eta baita lortu ere. «Oso positibotzat» jo zuten langileen iturriek espedienteen bazterketa, baina Fidalgo Probintzi zuzendariaren dimisioa eskatzen segituko dutela iragarri zuten, «bera bait da botere gehiegikeria horien arduradun nagusia».

# Industri Politika txostena zuzendu beharra dagoela uste du Larrinagak

BILBO

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia sailburua den Jon Larrinagaren iritziz, Industria Sailak egindako Industri Politikari buruzko txostenean «sindikatuaren ihardueraz esaten dena» zuzendu beharra dago.

Euskal Autonomi Elkarte (EAE) Ekonomia sailburua ELA, UGT eta CCOO sindikatueta idazkariarekin bildu zen atzo Bilbon euskal industri krisiari buruz eztabaidatzeko.

Elorrieta, Frade eta Bengoa bat etorri ziren «Administrazioak gizarte agenteekin daukan harreman urria» azpimarratzeko orduan eta bi aldeek arteko negoziaketak eman daitezkeen bitartekoak jartzeko eskatu zioten Larrinagari.

Sailburuaren iritziz negoziazio

horiek Gizarte eta Ekonomi Kontseiluaren bitartez bidera daitezke, «baina horretarako erakunde berri-tu beharra dago, sortu zenetik ez bait du funtzionatu».

**«ETORKIZUNERAKO LAINO BELTZAK»**

Era berean, LAB sindikatuak Jon Azua Industria sailburuak aurkeztutako 1991-1995 eperako Industri Politikari buruzko txostena salatu zuen.

LABen iritziz, plangintza aurrikosten diren inbertsioen % 90 «inbertsiogileen baikortasunaren eskuetan» uzten da eta horrek «plan faltaren aurrean gaudela erakusten du».

Sindikatu honetako iturriek gaineratu dutenez, «horri Madrilgo Gobernutik datorkigun industri zi-

gor politika eta azpiegitura falta gehitzen badiogu, etorkizun ekonomiko eta industrialean laino beltzak aurrikusten ditugu».

Sindikatuak plangintza parte ez hartzea salatzeaz gain, LABek planean jasotzen diren erakunde «parapubliko» ugariak kritikatu ditu, «iruzurrak egiteko aukera ematen bait du, ihardueren kontrol publikoa oztapatuz».

LABek «plangintza Gobernu Kontseilutik pasa bino lehen» bere barnean jasotzen den zailtasunean dauden enpresentzako 3-R egitaraua onartzea kritikatu du. Madrilgo Gobernuak euskal enpresa handien (AHV, Acenor...), Bilbo eta Pasaia-ko portuen eta aireportuen kompetentzia izateak «gure herriaren etorkizun ekonomikoa baldintzatzen segituko duela» uste du LABek.